

## MEATZARITZA ETA BESTE BALIABIDE GEOLOGIKO BATZUK MINERÍA Y OTROS RECURSOS GEOLÓGICOS

Bizkaia

Muskiz

### ORCONERA IRON ORE COMPANY LIMITED



Orconera Iron Ore Company Limited etxearen meatzaritza-aztarnak Campomar izeneko gain batean daude, Muskiz udalerriko Pobeña auzoan. Aztarna multzoa bi metro garai den harlangaitz-horma batek inguratzen du, eta barnean daude garbitegiaren hondakinak, gordetegia, bulegoak eta zerrenda-arduradunaren etxebizitza.

xx. mendearen lehen hamarkadan, Orconera konpainiak Campomarreko gain honetako lursaila erosi zuen mineral garbitegi handi bat ipintzeko asmoz. Horretarako, konpainiak aireko tranbia garrantzitsu bat jarri zuen. Tranbia hori Zugaztietatik azken geltokira –gain horretara, alegia– iristen zen eta bertan deskargatzen zituzten, biltegi edo azpil handietan, Matamorostik ekarritako lurrak. Aireko tranbia hura Europako garrantzitsuena zen bere garaian, perfekzio teknikoa eta handitasuna kontuan hartuta. Linea 8 kilometro luze zen eta perrailetan 1.400 tona inguruko karga garraiatzen zen eguneko. Kable-sistemak, traktoreak eta errailak 62.000 metro neurtzen zituzten, eta perrailen abiadura 2,5 m/s-koa zen. Garbitegirako ura itsasotik igotzen zen El Puntal izeneko tokian –bertan zegoen ponpa etxea– eta ondoren, buztinarekin nahastuta, itsaso zabalera itzultzen zen El Aspra izeneko gunean. Garbitegiak 1945 arte funtzionatu zuen eta sei danbor birakari zituen. Gaur egun garbitegiaren egitura arkitektonikoaren hondakinak bakarrik gelditzen dira, Orconera konpainiaren beste aztarna batzuekin batera (hala nola, zerrenda-arduradunaren etxebizitza, gordetegia eta bulegoak). Monumentu izendatu dute 2012an.

Los restos mineros de la Orconera Iron Ore Company Limited se localizan en el paraje conocido como Alto de Campomar, en Pobeña, en el municipio de Muskiz. Todo el conjunto se encuentra rodeado por un muro de dos metros de altura realizado en mampostería, que alberga las ruinas del lavadero, almacén, oficinas y vivienda del listero.

En la primera década del siglo xx, la Orconera adquirió estos terrenos de Campomar, con objeto de instalar un gran lavadero de mineral. Para ello, la compañía ejecutó un importante tranvía aéreo que, desde La Arboleda, llegara a la estación final, en este alto, en el cual se descargaban en grandes depósitos o maseras las tierras traídas de la zona de Matamoros. Este tranvía aéreo estaba considerado en su tiempo como el más importante de Europa, por su perfección técnica y su gigantismo. Tenía una longitud de línea de 8 kilómetros, y la carga transportada por los baldes era de unas 1.400 toneladas diarias. El sistema de cables, tractor y carril medían 62.000 metros, y la velocidad de avance de los baldes era de 2,5 m/seg. El agua para el lavadero se elevaba desde el mar, en el sitio denominado El Puntal, donde estuvo situada la casa de bombas, y se devolvía a mar abierto, mezclada con arcilla en el punto llamado El Aspra. El lavadero estuvo en funcionamiento hasta 1945. Hoy en día del lavadero sólo queda la arruinada estructura arquitectónica que acogía los seis trómeles de que dispuso, junto con los restos de otras dependencias de la Orconera, como la vivienda del listero, el almacén y las oficinas. Ha sido declarado monumento en 2012.